

# **Ikasgeletatik espazio publikora**

**Arte garaikidearen  
inguruan egindako  
titulazio amaierako  
lanen bilduma bat.**

## **Deialdia**

## **Aurkezpena**

Artiumek, UPV-EHUko (GIU18/153) *Gizaartea* ikerketataldeak eta unibertsitate bereko Artearen Historia eta Musika Sailak azken urteotan arte garaikidearekin lotuta Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Akitaniako (Frantzia) unibertsitateetan eta goi-mailako hezkuntza-erakundeetan egin diren Gradu Amaierako Lanak (GAL), Ikasketa Amaierako Lanak (IAL) edo Master Amaierako Lanak (MAL) ezagutzera emateko antolatutuzte jardunaldiok.

Jardunaldi horietan askotariko espezialitateetako lanek dute tokia (edozein diziplina artistiko, artearen historia, filosofia eta estetika, antropologia, soziologia, arte-hezkuntza, ikus-entzunezko komunikazioa, etab.), proposamen eta lengoia artistiko garaikideekin harremana badute.

Ikasgeletan sortutako ekarpen horiek zabaltzeaz gain, sorkuntza artistiko garaikidearen inguruan hainbat diziplina eta jakintza-arlotako graduatuen arteko topagune bat sortu nahi dute jardunaldiek.

## **Programa**

Jardunaldiak Artiumen egingo dira. Programa irekiko duen inaugurazio-hitzaldi baten ondoren, parte-hartzaile bakoitzak –batzorde zientifiko batek aldeztatik hautatua eta aukeratua, parte hartu ahal izateko aurkeztu behar duten titulazioaren amaierako lanaren laburpen batean oinarrituta– 20 minutu izango ditu bere lanaren emaitza nagusiak ezagutarazteko. Esku-hartzeak gaikako kidetasunen arabera multzokatuko dira, eta eztabaida-mahaiak sortuko dira hizlarien eta bertaratutako publikoaren artean elkarrizketak egin ahal izateko.

Jardunaldietan zehar, gela bat antolatuko da parte-hartzaileek performanceak, ikus-entzunezko proiektzioak edo kontzertu txikiak egin ahal izan ditzaten, baina ekoizpen-hornidurarik gabe. Esku-hartze horiek aldeztatik programatuta egon beharko dute; beraz, ezinbestekoa izango da erakundearekin behar besteko aurrerapenarekin harremanetan jartzea, esku-hartze horien xehetasunak zehazteko.

## Oinarriak

- Sorkuntza artistiko garaikidearekin lotutako titulazio amaierako mota guztietako lanak aurkeztu ahal izango dira, espezialitate edo modalitate murrizketarik gabe.
- Hautatutako lanak 2017/2018 eta 2018/2019 ikasturteetan defendatu behar izango dira, eta 10 puntutik 7,5eko gutxieneko nota jaso behar izango dute.
- Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako edo Frantziako Akitania eskualdeko edozein unibertsitatetan edo goi-mailako hezkuntza-erakundetan egindako era guztietako lanak aurkeztu ahal izango dira.
- Euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko lanak onartuko dira.
- Jardunaldietan parte hartu nahi dutenek proposamen bat bidali beharko dute 2020ko urtarrilaren 17a baino lehen, datu pertsonalak (izen-abizenak, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa), lan-oharraren justifikazioa eta 500 hitzeko laburpen bat (orrialde bat gutxi gorabehera) helbide elektroniko honetara: [actividades1 @artium.eus](mailto:actividades1@artium.eus)
- Jasotako eskabideak batzorde zientifiko batek ebaluatuko ditu, parekoen balioztatze-sistemaren bidez. Onartu diren parte-hartzaileei jardunaldietan parte hartuko dutela jakinaraziko zaie, harremanetarako eman duten helbide elektronikoaren bidez. Behin betiko programa 2020ko martxoko lehen egunetan argitaratuko da.
- Esku-hartzea onartu ondoren, performanceak, kontzertuak edo ikus-entzunezkoen erakusketa egiteko gordetako aretoan lana erakutsi nahi duten parte-hartzaileek jardunaldien antolatzaileekin harremanetan jarri beharko dute ekarpen horien xehetasunetan ados jartzeko.

## Egutegia

- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2020ko urtarrilaren 17a.
- Onarpenaren jakinarazpena: 2020ko otsailaren 7a baino lehen.
- Jardunaldiak: 2020ko martxoaren 26an eta 27an.